

ez gaituzte ixilduko

08zk. 2005ko martxo

Ordiziako ezker abertzalearen

ahotsa



**PNV eta EAren
AURREKONTUAK**

**ORDIZIAKO PNV eta EA
EZ LAPURTU GURI
DAGO KIGUN DIRUA!**

Hau al da nahi dugun Oiangu?

Aberri Eguna

2005:

urrats sendoak
ematen.

oztopo guztien gainetik

ORAIN

batasuna

**EPAIKETEN GAINETIK
GAZTE TA ERREBELDE**





95etik interes pribatu eta asmo handiak izan dira Oianguren inguruan: Dena Sport enpresak hiru urtez izan zuen kontzesioa (Udalak dirutza handia galdu zuen eta Oiangu erabat utzita egon zen); Oianguko lurretan zazpi txalet txikiz osatutako Hotel proiektua aurkeztu zen; hainbat urtetan aterpetxea eta jatetxea izan ditugu, baina ez da izan benetako ekimenik erabilera publikoko aisialdi gune moduan bultzatzeko; zalditegi bat jartzeko proiektua ere aurkeztu zen...

Urte horietan guztietan Udalak erabateko utzikeria izan du Oiangurekiko. Irudimen eza eta lan egiteko gaitasun eza izan ditu. Eta orain, Oiangu hobeto erabili behar dela aitzakia bezala hartuta, beste enpresa bati eman dio 40 urtetarako kontzesioa.

Hitz gutxitan esanda, enpresa horrek aurkeztutako egitasmoaren funtsa da golf zelai bat jartzea, baserria hotel eta jatetxe garesti bihurtzea, eraikin berri bat eraikitzea taberna funtzioa betetzeko, igerileku txiki bat eraikitzea, paint-ball jolaserako eremu bat egokitzea, eta erabilera liberako eta meriendalekurako espazioa izugarri murriztea.

Baina proiektu horren legezkotasuna eta interesa bera ere oso zalantzan jartzeko nahikoa arrazoï eta kontu ilun badaude, Udalak ezkutatu nahi dituenak, eta guk salatuta eta ordiziar eta goierritar guztiei jakinarazi nahi dizkiegunak.

OIANGU PUBLIKOA GUZTIONA eta GUZTIONTZAT

1.- Nola liteke halako baserri eta lur publiko ederrak, goierritar guztiok disfrutatzeke izan behar dutenak, interes pribatu baten esku utzea 40 urtez? Oianguren erabilera beti izan behar du publikoa. Baina egitasmo honekin pribatizatu egiten da. Izan ere, egitasmoaren ardatza golf zelai bat da. Golfak lurren erdia baino gehiago bereganatuko du, eta erabilera libreko (ordaindu gabeko) espazioa izugarri murriztuko da. Jakina, golfaren izaera elitista eta minoritariak da, eta haren funtzionamenduaren oinarria kuota oso garestiak ordainduko dituzten bazkideak izango dira.

2.- Kontzesio berri hau emateko Oiangu-Txiki baserriari Udalak berak beste 20 urtetarako emandako kontzesioa kendu behar dio. Baina 200 urtez baserri horretan lan egin eta bizi den familiaren eskubideak zapaltzen eta legeak eskatzen dituen baldintzak bete gabe (Osoko Bilkura baino lau egun lehenago izan zuten asmoaren berri).

3.- Kontzesioaren lehiaketa IKENA enpresak irabazi du. Baina ez da IKENA izango kontzesio horretaz arduratuko dena, baizik eta geroago sortuko den IKENGU enpresa. Nor da IKENGU? Lehiaketan parte hartu ez duen eta oraindik existitzen ez den IKENGU enpresak, ordea, obrak IKENARI emango dizkio zuzenean, adjudikatzeke lehikaetarik ere egin gabe.

Egin beharreko obrek 2 milioi eurotik gorako aurrekontua dute. Horretarako mailegua eskatuko dute. Baina abala ez du ez IKENAK, ez IKENGUK, ez eta enpresa horietako bazkideek ere jarriko. Kontzesioa bera hipotekatuko omen da, eta horrela, azken finean Udalak berak abalatu beharko du

egitasmu pribatu hau. Gainera, onar al dezake banketxe batek kontzesio baten hipoteka, inolako ondasun higiezinik (bien inmueble delakoa) hipotekatu gabe? Zer gertatuko litzateke esaterako, asmoak porrot egiten badu eta IKENGU desagertzen bada? IKENGU desagertuta, lehiaketa irabazi duen IKENAK ez lioke aurre egingo egoerari. Udalak egin beharko lioke.

Gainera, lehenengo 10 urteetan IKENGUK ez du baserri eta lurren erabileragatik xentimo bakar bat ere ordainduko, eta hurrengo 30 urteetan soilik 30.000 euro urteko.

4.- Horrez gain, golfak azken finean landaretza eta fauna aldetik oso aberatsak diren eremuak basamortu berde bihurtzen ditu. Gainera, izugarrizko ur kopuruak eskatzen ditu, eta ur publikoa erabiliko dute; aterpetxea desagertu egingo da jatetxe eta hotel garesti bihurtuz; erabiltzeko ordaindu beharreko igerileku txiki bat eraikiko da.

5.- Udalak egitasmu hau erabat ezkutuan eraman du, eta ikusi arren legezketasunik ez izateko zantzuak daudela, Osoko Bilkuran onartu egin du. Beraz, ikuspegi juridiko batetik baliteke legezkoa ez izatea eta gainera prebrikazioz jokatu izana.

Ikuspegi politikotik ere salatu nahi dugu proiektua ezkutuan eraman dela eta halako eragina izan arren herritarrek ez dituztela ezertxotaz ere informatu. Jada duela bi urte inguru hasi ziren asmo hau lantzen eta udalarekin harremanetan, baina ezkutuan, informazio publikorik eman gabe. Proiektuaren neurrira atera al da lehiaketa? Behin egitasmoa aurkeztuta (bakarra) eta epea amaituta, urtarrilaren erdi aldera aurkeztu zitzaigun talde politikooi. Baina soilik Osoko Bilkura baino 3 egun lehenago



jakin genuen zein zen akordio proiektua, eta oraindik ere hainbat xehetasun ez dira jakinarazi.

Gauzak honela, hainbat eskaera egin nahi dizkiegu Ordiziako Udalari, IKENA enpresari eta ordiziar guztiei:

1.- Proiektu honek interes pribatu eta elitistak defendatzen dituzenez, eta behar bezalako baldintzak betetzen ez dituzenez, udalari bertan behera uztea eskatzen diogu. Udalaren ardura izan behar du gauza guztien gainetik Oianguko baserri eta lurra interes publikoaren zerbitzura jartzea, bereziki behar larrienak eta ahalmen eskasena izan ditzaketenezako egokituz. Oianguk beste ezereen gainetik izan behar du haur eta familientzako atsedena eta jolastoki; gazteentzako aisialdi alternatiba (prezio egokitaro aterpetxe eta jantoki, ingurumen formazio...); jubilatuta eta adinekoentzako pasealeku...

2.- Horrez gain, Udalari eskatzen diogu kasu honetan ez ezik, gainontzeko hainbatetan ere (Altamirako kirol instalazioak, Apellanizeko operazioa, San Juanen garapena eta AHTren eragina, aurrekontuak...) gardentasunez joka dezala,

herritarrok informatuz, parte hartzeko bideak eskainiz eta behar den kasuetan kontsultak ere eginez.

3.- IKENari berari ere eskatzen diogu emandako arrazoï guztiengatik atzera egitea eta proiektua erretiratzea, harik eta Udalak eta herritarrok gaia berraztertzen eta egitasmoa berdefinitzen dugun arte.

4.- Azkenik, ordiziarrei eskatzen diegu Udalaren funtzionamendu eskasaren aurrean ez dezatela etsipenez edo utzikieriaz jokatu. Pentsakizun bateko edo beste ko izan, ordiziarrok herritar aktibo izan behar dugu, gure agintariei gardentasuna, lana eta herritarrek parte hartzeko bidea exigitu behar dizkiegu. Horregatik, ordiziarrei dei egiten diegu Oianguren erabilera publikoaren alde sortuko den plataforman eta ekimenetan parte har dezaten.



Por un Oiangu publico, de todos, para todos.

El Ayuntamiento acaba de aprobar conceder Oiangu (casero y terrenos) a una empresa que pretende crear allí un campo de golf, convertir el actual albergue en hotel y restaurante, construir un campo de paintball, una pequeña piscina... reduciendo de forma escandalosa las zonas de libre y gratuito acceso y disfrute.

Pero el proyecto y la forma en que el Ayuntamiento lo ha adjudicado tiene las suficientes irregularidades y falta de interés publico como para denunciarlo y pedir que se paralice:

1.- Se cede el casero y los terrenos públicos a una empresa privada que lo explotará durante 40 años, convirtiendo un espacio de disfrute público y gratuito en un campo de golf (deporte elitista, minoritario y muy caro), y hotel y restaurante de precios poco asequibles, y cerrará el acceso a casi 2/3 de las campos de Oiangu. A cambio de ello durante los 10 primeros años no tendrá que pagar ni un solo céntimo, y solo 30.000 euros anuales durante los siguientes 30 años.

2.- Para ello de alguna manera se privatizan terrenos publicos, y se retira a la familia de Oiangu Txiki (que vive allí desde hace 200 años) parte de la concesión que le concedió el Ayuntamiento para disfrutar del mismo hasta dentro de 20 años.

3.- IKENA ganó el concurso de ideas para acceder a la concesión. Sin embargo, IKENA será la que ejecute las obras previstas (más de 2 millones de euros de presupuesto) sin que se hayan licitado de forma pública. Por otra parte, de la explotación de Oiangu se encargará IKENGU, empresa que por ahora ni siquiera existe.

Para todo ello se pretende pedir un prestamo bancario que no lo avalará ni



IKENA, ni IKENGU ni las personas que conforman esas sociedades, sino que se hipotecará la concesión misma. ¿Qué sucederá si IKENGU desaparece? ¿Quién hará frente a la hipoteca? ¿Cómo es posible que el Ayuntamiento no sólo ceda unos terrenos públicos a un proyecto privado, sino que además lo avale asumiendo todos los riesgos?

4.- El golf convertirá al parque de Oiangu, riquísimo en flora y vida animal, en un desierto verde, que necesitará de grandes cantidades de agua (agua que será también pública); convertirá el albergue en hotel y restaurante de élite; construirán una piscina de pago.

5.- Las irregularidades del proyecto hacen pensar que pueda haber indicios de que no cumplen las normas y la legalidad, y que el Ayuntamiento haya actuado con prevaricación.

Sin embargo fue aprobado en Pleno.

Por otra parte, a pesar de que hace ya dos años que se empezó a elaborar el proyecto y a tratarlo con los responsables municipales, el proyecto se ha llevado con total secretismo y no se ha facilitado ninguna información pública. Se elaboraron las bases de un concurso (¿a medida?), en diciembre se presentó una única empresa, presentaron en Comisión Municipal el proyecto a mediados de enero, y en febrero se aprobó, dándose a conocer el acuerdo sólo cuatro días antes del Pleno.

Por todo ello exigimos:

1.- Al Ayuntamiento que no apruebe el proyecto por las irregularidades que presenta, por que defiende intereses totalmente privados, y por ser un proyecto elitista que no posibilita el disfrute público y gratuito de Oiangu.

Asimismo exigimos al Ayuntamiento que actúe con transparencia y de forma democrática, informando a los vecinos de Ordizia (tanto en este caso, como en tantos otros: proyecto deportivo de Altamira, proyecto del Tren de Alta velocidad y desarrollo de San Jaun, elaboración de presupuestos...), posibilitando la participación ciudadana y realizando consultas en los casos necesarios.

2.- Pedimos a IKENA que por todos los motivos expuestos retire el proyecto hasta que los vecinos y vecinas de Ordizia y el Ayuntamiento lo analicen pausadamente y lo replanteen.

3.- Por último, pedimos a los ordizarras que no se resignen ante el despotismo e incapacidad del Ayuntamiento, y actúen de forma responsable exigiendo ser informados, exigiendo canales para la participación ciudadana, y exigiendo ser consultados. Asimismo, les pedimos que participen activamente en la plataforma y en las iniciativas que se organicen para lograr seguir disfrutando pública y gratuitamente de Oiangu.

